## gaurkoan

Paulo Agirrebaltzategi (*)

# EKBren Batzarre Nazionalaren aurrean

Martxoaren 5ean egingo du EKB (Euskal Kulturaren Batzarrea)k II. Batzarre Nazionala, Donostiako Zorroagan. Hori dela eta, zenbait argibide eta gogoeta batzuk azaltzeko une egokia izan daiteke.

Duela bost urte kaleratu zen EKB, euskal kulturako sail ezberdinetako talde, elkarte eta erakunde herritarren koordinadunde zabala eratzeko, Euskararen normalkuntzarako plangintzaren herri-oinarri eta eragile gisa. Geroztik hainbat bider agertu izan ditu bere asmoa eta helburuak; eta euskararen eta euskal kulturaren alorreko hamaika ekintzaren bultzatzaile (edota antolatzaile) eran azaldu da EKBren izena.

Idazkaritza teknikoaren eta koordinazio-arduradunen eguneroko lanaz gain, zenbait lanbatzordetan oinarritzen da EKBren ihardunbide normala. *Nazio-Batzordea* da organo funtsezkoetako bat, koordinaturik dauden talde eta elkarte eta erakunde guztien ordezkariek osotua; horren iraunkortasuna *Batzorde Iraunkorrak* betetzen du. *Batzarre Nazionala*, EKBn koordinaturik dauden talde, elkarte eta erakunde guztietako lagunek osotzen dute.

**Lehen Batzarrea Eibarren eta Iruñean**

Bere lehen Batzarre Nazionala 1984eko uztailean egin zuen EKBk, bi saiotan (Eibarren aurrena eta Iruñean, UEUren barruan, bigarrena).

Batzarre horretan euskararen egoera eta dinamika aztertu ziren, euskal kulturako sail bakoitzekoa eta orokorra. Era berean Euskararen normalkuntzarako plangintza orokorra bideratzeko abiaburuak eta helburuak definitu zituen EKBk; azkenik EKBren beraren ihardunbidearen ardatzak zehaztu ziren.

Batzarrean abiaturiko eta bideraturiko lana geroko hilabeteetan luzatu eta sakonduz joan zen; hainbat txostenetan gauzatu zen. Guzti horien laburpena 1985ean argitaratu zuen EKBk, *Jakin* aldizkariaren 34. zenbakian, monografia gisa, eta *Euskararen Plangintzarako Oinarriak* tituluarekin.

EKBren asmoa, helburuak, egitura eta ihardunbidea ezagutzeko oinarrizko testua da oraindik dossier hori. Bestalde, hor egindako euskararen egoera eta dinamikaren analisiak oraindik ez du bere balioa galdu, nahiz eta gaurkotzekoa eta berritzekoa izan.

**EKB, bidea irekitzen**

«Ekin koordinazioaren bideari» izan da EKBk aurten erabili izan duen sloganetako bat. Horretan dihardu orain arteko bost urteotan, euskararen berreskurapenerako eta plangintza orokorrerak behar-beharrezkotzat jotzen duelako.

Euskal Kulturako hainbat sailetan eraturik dago EKB: Irkaskuntzan, Unibertsitatean, Komunikabideetan, Administrazio Publikoko *itzultzaileen artean, Antzerki-sailean, Helduei* euskara irakasteko sailean, liburu eta diskagintzan. EKBn koordinaturik daude, bestalde, euskal kulturako talde eta elkarte ugari: UEU, GILE, EATB, EHE, «Jakin», «Argia», AEK, etab. Beste hainbat elkarte eta erakunderekin elkarrizketak oso aurreraturik daude, koordinazioa zabaltzeko asmoz. Iparraldean ere EKBren asmoa gorpuzteko urrats zenbait emana dago.

Kultur sail bakoitzeko koordinazioan oinarritzen da EKB, eta sail horietako talde eta elkarteen arteko batzarre zabala izan nahi du, Euskal Herri osokoa. Baina kultur sailetako EKBekin batera, herrietako EKBak osotzen dute Batzarrea. Alde honetatik oso garrantzizkoak dira hainbat herri eta auzotan eratu diren EKBak, bertako euskararen normalkuntzarako plangintzari eta ekintzari begira bereziki.

Koordinazioa ez da, hala ere, azken helburua. Horretara iristeko bidea eta ihardunteko forma da. Hainbat zerbitzutan oinarritzen da koordinazioa: horien artean aipatzekoa da Euskarari eta euskal kulturari buruzko dokumentazio eta informazio-zentrua, eta zabaltzen hasia den *Prentsa Dokumentazio Zerbitzua*. Kultur sailen eta elkarte ezberdinen arteko hainbat ekintzetan konkretatzen da, bestalde, EKBren koordinazioa: Antolatu izan duen *Euskararen Egun Nazionalaz* gain, une honetan erabat garrantzi handikotzat jo behar dugu datozen bi hilabeteotan Ikastolen Konfederazioarekin batera aurrera eramango duen kanpaina zabala, *Bateginik* izenpean.

Bost urteotan EKBk bide egoki eta beharrezko bat markaturik duela uste dugu; baina oraindik ebakitzekoa eta egitekoa da bide luzea. Proiektu ireki bat da funtsean EKB, zabaltzekoa eta sendotzekoa.

**II. Batzarre Nazionala**

*Bateginik* kanpainaren bi hilabeteko arkuaren barruan eratu eta gauzatuko da, hain zuzen, EKBren bigarren batzarrea: martxoaren 5ean abiatu eta maiatzean egingo den beste bilera zabalean burutuko da. Tarteko prozesu horretan batzorde batzuk txostenak landu eta zuzenduko dituzte eta kultur sailetako eta herrietako EKBek, beren egituratzea zabaltzearekin eta finkatzearekin batera, txosten horiek aztertu eta osotuko dituzte.

Ekintzaldi eta eraketaren testuinguru eta dinamika horren barruan EKBren Batzarre «iraunkorraren» lana lau kapitulu nagusi hauetara lotuko da:

1. Euskararen normalkuntzaren balantzea, azken hamar urteotako bidearen eta ahaleginen ondoren: Euskal Herri mailan, kultur eta gizarte-sail bakoitzen eta herri bakoitzeko egoerari begira da egiteko azterketa.
2. Herri-dinamikaren funtzioa euskararen berreskurapenean eta euskal kulturaren berbizkundean, eta haren eraketaren garrantzia eta forma.
3. EKBren aurrerabidea: bost urteotako balantzea; abiaburuak eta helburuak sakontzea; EKB sektorialak eta lokalak zabaltzea; barneraketa zehaztea eta bizkortzea; erakunde ofizialekiko eta bestelako erakunde kultural eta sozialekiko harremanak argitzea eta areagotzea; koordinazio-zerbitzuak indartzea; nazioarteko harremanak bideratu eta gauzatzea.
4. Datozen hamar urtetarako EKBren «estrategia», euskararen normalkuntzarako plangintzari eta euskal kulturaren berbizkunderi begira.

Azken kapitulu honengatik du garrantzi berezia EKBren II. Batzarreak; baina estrategia horri begira, hain zuzen, beste puntuak ere (egituraketarena eta funtzionamenduarena, harremanena, etab.) zorrozki aztertzekoak eta erabakitzekoak dira.

Proiektu irekia delako eta eratze-prozesu zabalean dagoelako EKB bera, Batzarre hau ere oso irekia eta zabala izango da; horregatik, bertan koordinaturik dauden talde, elkarte eta erakunde guztiekin batera, beste hainbat lagunak eta elkartek hartuko du parte horretan.

(*) *Euskal Kulturako langilea*

## puntaren puntan

### Los oráculos

En el mundo de la información, ya lo dijimos, suele ser práctica habitual recabar opiniones a botipronto sobre los más dispares aconteceres. Y no es que tenga uno ninguna malquerencia especial con este subgénero que, bien administrado y con el ánimo dispuesto a lo que salga, viene a ser hasta audaz y gratificante ejercicio. Lo que a uno ya le parece un abuso es que los recabadores de opinión, en lugar de echarse a la calle como debieran, ejerzan a tiro hecho y solamente les pongan el micrófono en el morro a los notables, y siempre a los mismos notables.

Los poderes fácticos informativos, que los hay, cuando estas consultas «de urgencia» se refieren a Euskadi llegan, más que al abuso, al atropello. Apelan siempre a los mismos «expertos» cuya cualidad común es la beligerancia contra la izquierda abertzale, «expertos» que, con mayor o menos entusiasmo, no le hagan ascos al Plan ZEN. Y así, la muerte de Mikel Lopetegi ha sido pasto de la más flagrante manipulación por parte de los poderes fácticos informativos y sus «expertos». Dejarles babear a Juan Mari Bandrés y Joseba Azkarraga, dos personajes pringados hasta los corvajones en el tema de la reinserción, ponerles a estas dos figuras el cadáver aún caliente de un preso vasco muerto en tan desesperadas circunstancias, ha sido, ni más ni menos, darles pie a tergiversar cuanto les viniera en gana, sabedores de que los muertos no hablan, para resucitar su propio proyecto difunto. No se les ocurrió a los poderes fácticos informativos, que tanto pueden, prestarles el micrófono por un momento a los que, desde la misma lobreguez de esa prisión, compartieron con Mikel la lucha, la entereza y la esperanza, y hoy lloran su muerte con la ilusión de que aquella celda quede vacía para siempre.

ZABALEGI

## hemeroteca

### Sospechas

(Juan Cruz, «El País», 3-3-88)

(...)La famosa canción de Nicolás Guillén dice que al negro lo matan siempre, tanto si trabaja como si no trabaja. Siempre lo matan. Nos pasa a todos: nos matan siempre, porque en cualquier caso somos sospechosos. Y, por tanto, perseguibles. Pero los jueces son sabios, como es natural, y nos traen la semántica a la cabecera de la cama, para nuestra tranquilidad y la de los comisarios sospechosos. No es lo mismo ser sospechoso que ser indicativo, y por tanto es perfectamente lícito seguir caminando por la calle como si nada hubiera pasado a pesar de que ejerzamos ese viejo oficio de resultar sospechosos. Estamos salvados. Que tiemblen los indicativos y que los sospechosos sigan su rumbo bajo el frío urbano, respirando el olor del gas y escuchando ufanos el trompeteo de las ambulancias. El mundo es suyo porque son sospechosos fuera de toda sospecha.

### Indulto general

(«Ya», 3-3-88)

Empezamos a advertir los efectos que pronosticábamos en un editorial reciente: quien negocia con delincuentes, acaba colocándose a su nivel. El lenguaje empleado respecto a los presos etarras, empieza a parecerse al de un secuestrador que hablase de sus rehenes. Se saca a relucir a los etarras presos con ocasión del secuestro de Revilla, como si de realidades análogas se tratase y se habla de esos presos como si estuviesen a disposición del Gobierno, que en cualquier momento puede decidir sobre su suerte, como ETA puede decidir sobre la de Revilla, cuando lo cierto es que esos presos no están ya a disposición de nadie más que de la justicia. ¿O es que las negociaciones estaban ya tan avanzadas como para dar por supuesto que los 500 presos etarras iban a ser liberados?.

(...)

Diez años después, un Gobierno constitucional hace equilibrios en torno a los «delitos de sangre» y admite ya que éstos forman parte de la amnistía -que no indulto- que se negocia. Con esa amnistía vergonzante y vergozosa, diez años de Estadodemocrático de derecho quedan entre paréntesis. Volvemos a la transición... ¿Hacia qué?.

### Paciencia y audiencia

(Vicente Copa, «El Correo Español», 3-3-88)

(...)No sé cómo se resuelve esta situación. Pero es seguro que la coyuntura a la que ha llegado la televisión vasca se debe a una gestión de este medio que sólo ha contado con los criterios de las fuerzas políticas nacionalistas. Y este es asunto para un gran debate político y técnico que no se ha producido.

ETB ha sido hermética salvo para el Gobierno del PNV y para el propio PNV que, para mayor contradicción, se queja por activa y pasiva de que su mando político no se traduce en influencia práctica. Por otra parte, ETB-2 nació clandestinamente, en un golpe de mano osado de José María Gorordo que burló al consejo del Ente y al Parlamento.

Lo mismo que los grandes temas de interés la televisión vasca tiene que ser objeto de un gran debate entre los partidos en el Parlamento. Si eso no se hace y ETB sigue deteriorándose en credibilidad, en audiencia y en coste presupuestario, la responsabilidad estaría en los que tomaron decisiones sin contraste de opinión y sin el más mínimo consenso político.

### Inquisición

(Pedro Villalar, «El Diario Vasco», 3-3-88)

Tras varios intentos fallidos, he logrado al fin desplazarme a Toledo a contemplar la magna exposición allí montada de instrumentos de tortura utilizados en Europa en los pasados siglos, gran parte de ellos ideados y utilizados profusamente por la Santa Inquisición.

No es extraño que el cardenal primado de Toledo se sienta incómodo, como ha declarado, ante la inquietante exposición que se alza, precisamente a espaldas de la catedral(...)

En cualquier caso, es muy ilustrativo para los visitantes de la «ciudad imperial» el contemplar, al tiempo que la pompa y el boato de las liturgias religiosas, el recuerdo de aquella deplorable intransigencia religiosa que utilizaba refinadísimas máquinas de tortura contra quienes tenían la osdía de discutir su poder.




'El País'